



ITSASOA GARA

LEHEN HEZKUNTZA | 2. MAILA



Kaixo aspaldiko!

Nola handitu zaren! Baita zure ikaskideak ere,... eskifaia ederra!


Jo ta poto utzi nauzu... Gogoan duzu fan den urtean nolakoa zinen? Begitu aurreko liburuxkan.

Marrazki edo irudi berria jarri beharko duzu hemen, ez dut jakingo bestela nor zaren...



Eta zure izen-abizenak?





Itsasoa gara.

“Itsasoa gara” jarri diogu izena 2. liburuxka honi, badakizu zergatik?
Itsasoa aldamenen dugulako, bai; baita itsasoak gure izanean eta iraganean eragin handia izan duelako ere.

Itsasoa maite duzu?

Itsasoak beldurtzen zaitu?

Zer da itsasoa zuretzat, zer ekartzen dizu gogora?

**Begira “Ken Zazpi” musika taldeari ekartzen diona:
<https://youtu.be/hIJ-KJgnWOU>
Kopiatu aldamenen abestiaren letra, ikasi etxean senideekin, saiatu lagunekin eta, guztiak batera abestu:**

Begiratu atzean ortzi mugak sutan
Gure begien zerutan.
Begiratu maitea, amildegi ertza,
Biziak, hila, ametsa.
Ez bilatu gauean izar hura
Zure begitan piztu da.





Ta ez galdetu inoiz zer galdu genuen
Negar egin genuenean
Malko haiei esker
Orain itsasoa gara, orain itsasoa gara.

Orain hemen gaudela, bidegurutzean
Utz ditzagun beldurrak atzean.
Ez gara izan onenak, beharbada
Baina gure bizitza izan da.
Mendeetako kanta erditu da
Gure ordua heldu da.

Ta ez galdetu inoiz...



Itsasoa zen aitzina garraio eta merkataritza-bide nagusia; ez zeuden egun dauden errepide, autopista, trenbide eta horrelakorik: itsasoa eta ibaiak erabiltzen ziren gauzak garraiatzeko eta bidaietarako, ez soilik arrantzarako. Horrexegatik, Hondarribia herri garrantzitsu eta preziatua izan zen garai hartan.

Gogoan duzu nola aurreko liburuxkaren amaieran azaltzen genizun arkeologoei esker genituela antzinako aztarnen berri?

Ba horiei eta topatutako idatzizko dokumentuei esker dakigu nolakoa izan zen gure iragana.

Horietan topatu dugu nolatan iritsi ziren erromatarrak Erromatik Euskal Herrira, eta zerekin/nortzuekin egin zuten topo bertan.

Hara nola irudikatu zuten Euskal Herriko mapan, topatu zituzten leinuak:



Ba dakizu zer den leinua?

BEGIRATU HIZTEGIAN ETA IDATZI BERTAN, TOPATUTAKO AZALPENA:

.....

.....


.....

.....

.....

.....

.....



7

Familia edo klan bateko lerroa beraz.

Mapan irudikatuta agertzen den gisan, erromatarrak Euskal Herrira iritsi zirenean, bada, bertan hainbat leinu zeudela ikusi zuten: baskoiak, barduliarrak, karistiarrak, autrigoiak eta Bidasoaren bestaldean, akitaniarrak.

Gu, hondarribiarrak, zein leinukoak ginen mapa horren arabera?:

.....

.....

.....

.....



LEHEN HEZKUNTZA 1. MAILA





Bai! Baskoiak ginen


Artzantza, arrantza, laborantza eta ehiza ziren gure jardun nagusiak.

Baskoia izena, zeltiarren hizkuntzatik dator, haiek jarri baiziguten izen hori, eta *menditarrak* esan nahi du. Hara ze piura genuen:

Itxuraz ile luzea eramaten zuten gizon zein emakumeek eta basati eta borrokazaleak omen ziren. Eserita jaten omen zuten jatekoa eskuz-esku pasa eta dantza, salto eta soinu/kantua gogoko omen zuten Estrabon greziar historialari eta geografo ospetsuaren arabera.

Ahunzkia eta ezkurak jaten omen zituzten eta garagardoa edaten. Ospakizunetan ardoa edaten omen zuten eta lurrezko ontziak erabiltzen. Badirudi egun ezagutzen dugun euskararen forma zahar bat hitz egiten zutela orduan.

Naturaren indarrak gurtzen omen zituzten, ilargia besteak beste.



Zuk ba al dakizu txilibitua jotzen? Zein doinu?



Eta dantzan? Zeintzuk dantza mota?



Baduzu argazkirik dantzan, kantuan, edo musika jotzen?

Bilatu etxekoan laguntzaz eta antzemandakoa jarri bertan:



Ekonomia

Haien ekonomiaren oinarria, trukea omen zen. Badakizu zer den trukea?
Diruaren orde, gaiak eta objektuak erabiltzea behar edo nahi duzun zerbait eskuratzeko.

Antolatuko dugu truke-saio bat? Hartu etxetik, gurasoen baimenarekin, dagoeneko erabiltzen ez duzun zerbait: jostailuren bat, libururen bat, panpinen bat,.....

Zer aukeratu duzu?

.....
.....

Ikaskide guztiak egun berean ekarri gauzak eskolara, erakusgai jarri, aukeratu guztien artean zure gustuko zerbait eta saiatu aldatzen zuk eraman duzunaren truk

Zer da eskuratu duzuna?

.....

Zure ustez, erabilgarria da trukea?

.....


Ezagutzen duzu trukea erabiltzen duen inor?

.....



ERROMATARRAK BIDASOAN

Erromatarrek Gipuzkoan, K.a. I mendetik, VII mendera arte egon ziren eta eragin handia izan zuten: arrantza lantegiak sortu zituzten, mineralak ustiatu zituzten, portuak, zubiak eta galtzadak eraiki zituzten,... Ekarpen handiak egin zituzten baina bertakoek ez genuen gure nortasuna galdu, elkarbizitza gauzatu zen. Hizkuntza ere ez zen galdu, antzinako euskara mintzatzen baitzen, baina latina ere ekarri zuten eta hizkuntza horretan hasi ziren idazten; lehenik eta behin harrian eta ondoren paperaren antza zuen ehunean.



Aurkitu izan diren aztarnek adierazten dute erromatarren garaian, Bidasoa eskualdea, gune garrantzitsua izan zela, eta idatzizko iturrietan, Oiasso, Oleasso eta antzeko izenak agertzen dira lurralde honi buruz hitz egiterakoan.

HARA ORDUKOA IZAN DAITEKEEN MARRAZKIA, ETA EGUNGO ARGAZKIA.
IRUDIKATZEN DUZU BERTAN HONDARRIBIA? MARKATU ARGAZKI BAKOITZEAN.




Ze antzekotasun topatzen dituzu?

.....
.....

Eta zein desberdintasun?

.....
.....

Irungo Oiasso Museoa ezagutzen duzu?



<http://www.oiasso.com/eu/museoa> webgunean sartuz gero, bertan agertzen zaizu garai hura irudikatzeko hainbat informazio lagungarri. Nahi izanez gero, etxekoekin ere joan zaitezke bisitan, igande arratsalde eta astelehenak kenduta, egunero baitago zabalik.



Handik ez oso urruti dugu Ama Xantalen Baseliza. Bertan, barruan, Oiassoko nekropoli edo hilerria aurkitu zuten. Garai hartan hildakoak erraustu egiten omen zituzten eta errauts horiek ontzietan sartu. Horietako ontzi batzuk aurkitu ziren bertan.




Erromatarren garaian, hobetu egin zen egurrezko etheen eraikuntza eta aberatsak zirenak, harrizko etxeak eraikitzen zituzten. Hedatu egin zen adreiluen erabilera eta ordukoak ditugu teilak ere. Lurrezko ontziak egiten zituzten, eta horietako bat dugu alde zaharreko Panpinot kalean aurkitutakoa, hara:



Aiako Harrietan dauden Arditurriko meategiak ustiatu zituzten erromatarrek. Bertatik zilarra, kobrea eta burdina atera zituzten. Itxuraz, bertako aberastasuna izan zen erromatarrek gure artean gelditzeko arrazoietakoa bat. Kilometroak eta kilometroak dituzten galeriak zulatu zituzten mendiaren errailetan, hara:

Bertatik lortzen zutenarekin, haien armak, lanabesak eta mota guztietako tresnak egiten zituzten.



Sartu webgune honetan eta ikusiko duzue Arditurriko meatzeen gaineko irudi multzoa eta hainbat datu interesgarri:

<http://www.arditurri.com/>



Badakizue mendietan barrena eraikitako galeriak nola argiztatzen zituzten?

Nola uste duzue? Nola egingo zenuke zuk? Baina gogoan izan orduan oraindik ez zituztela linternak eta horrelakoak asmatu.

Idatzi bertan aukerak:



.....

.....

.....

Marraztu ezazu:




Begitu nola egiten zuten:

Paretetan apal txiki moduko zulotxoak egiten zituzten eta bertan, buztinezko ontzitxo batzuk jartzen zituzten. Ontzi hauen barruan, koipea sartzen zuten, ondo listatu guztia eta su ematen zioten, eta su honekin argitzen zuten galeria.

Ontzi hauek, **luzernak**

Izena zuten.




Meategietan lortzen zena, bertan zein kanpoan saltzeko zen baliagarria. Kanpoan saltzeko aukera paregabea ematen zien bertan Asturiaga bezalako aingura-lekua eta babeslekua izateak. Bertan egiten zuten geldialdia ontziek Londres edo Bordelerako bidean. Merkataritzarako toki garrantzitsua zen. Inguru horretan aurkitu izan dira hainbat txanpon eta aingura aztarnak.

Hara:



Honako aingura hau,
bertan antzemandakoa da:





Erromatarrek, galtzadak ere eraiki zituzten eta denbora asko irago bada ere, egun oraindik gelditzen dira aztarnak. Hara nolakoak egiten zituzten:



Begitu argazki hau; ez da erromatarren garaikoa, gaur egunekoa da:

Non dago?

.....
.....

Antzerako beste biderik badago? Non?

.....
.....
.....
.....



Garai hartakoak ditugu erromatar soldaduak ere, eta horiek gogoan hartuta irudikatu zuten ezaguna zaizun buruhaundi hau, gure herriko Erraldoi eta Buruhaundien konpartsa berritu zutenean.



Zerbait gogora arazten dizu honako marrazki honek?



Hondarribian ere ikus daiteke marrazkikoaren antza izan dezakeen ikuskizunik.

Hara arrasto bat: Jaungoiko hartzaileak.

Galdetu etxekoei... Esan dizute?

Noiz ikus daiteke?

.....

Zer dela eta?

.....



ERDI AROA HONDARRIBIAN

Erromatar inperioak gainbehera egin zuen, eta hondarribiarrek jarraitu zuten nekazari, abeltzain eta arrantzale izaten, nahiz eta artean, Bikingoen inbasioak izan. Badakizu hondarribiarrei “bikingo” esaten digutela? Entzun duzu inoiz?

Erdi aroa, aro iluna da. Honela esaten zaio, nahikoa garai gatazkatsua izan zelako. Erdi Aroak 10 mende iraun zuen. Aldaketa eta mugimendu ugari gertatu zireneko garaia dugu. Gainera, Hondarribia erresumaz aldatzen joan zen, une bakoitzean komeni zenaren arabera: Nafarroako parte izan zen, Gaztelakoa gero,...

Askok nahi zuten Hondarribia berea izatea, itsasorako irteera zuelako, eta hori garai hartan oso garrantzitsua zen, itsaso bitartez gauzatzen zelako merkataritza. Itsasoa, garraio-bide nagusia zen, munduarekin harremanetan egoteko. Orduan oraindik ez zegoen hegazkinik ez eta gaur egun ezagutzen ditugun moduko trenbide eta errepiderik. Hau honela izanik, eta muga aldamenean egonda, Nafarroako erreinua bere garrantziaz jabetu eta herria gotortzen hasi zen, babesten, hara nola irudikatzen dugun orduko hiri harresitua:



Ezaguna egiten zaizu?



Ezaguna egiten zaizu? Gaurko Hondarribiarekin erkatuko bazenu, herriaren zein auzo kokatuko zenuke bertan?

.....

Zergatik?

.....

Marrartzuko zenuke gaurko planoan bertan eraikin, toki eta kale nagusiak jarrita? Koaderno hartu eta pasieran joan zaitezke orduko hiri harresituaren barna denboran bidaia egingo bazenu bezala Arma Plazara, Gazteluari bisita eginez, Eliza, Apezpiku plaza, Ubilla dorretxea, Frantzes putzua, San Nikolas atea... Egindako marrazkiari argazkia atera, eta itsatsi bertan:

23

LEHEN HEZKUNTZA 1. MAILA



Hondarribia hiria, badirudi nafarrek sortua izan zela eta 1.200. urtean, Gaztelaren parte bilakatu. Nafarrek, defentsarako eraiki zuten Arma Plazan dagoen gaztelua, nahiz eta orain duen itxura beranduago eman zioten.



Entzun duzu sekulan **Artzu-ko Matxinen** historia?: 1280. urtean, Felipe III. Frantziako erregeak Hondarribia erasotu zuen, hiribildua setio-pean jarriz. Une horretan, Hondarribia, Gaztelako Erreinuaren menpe zegoen eta Gaztelako erregea bera, Alfontso X., Donostian zegoen. Jakin zuenean, bertara joan zen bere tropak lagun zituela, Jaizkibelgo mendia zeharkatuz. Horretarako, zonaldea ondo ezagutzen zuten pertsonak bildu zituen; Artzuko Matxin zen haietako bat. Artzutarrak, bide egokia adierazteaz gain, zaldien ferrak oihalekin estaltzea proposatu zuen, soinurik ez zezaten egin. Horrela, frantziarren kanpamendua ustekabean erasotu zuten eta ihesi joan ziren. Gaztelako erregeak, Artzuko Matxin saritu zuen, Gornutzeko eremua oparitzuz. Egun oraindik zutik dirau Artzu baserriak. Bisitan joan zaitezkete.



Erdi aroan, lan antolakuntza aldatu egin zen eta gremioak sortu ziren.

Gremioak, lanbide taldeak ziren, lanbide bereko artisauak biltzen ziren bertan: maisua, lanean trebatutako ofiziala eta lanbidea ikasten ari ziren aprendizak edo ikastunak. Hauek txikitatik joaten ziren maisuaren etxera edo tailerrera bizitzera, eta lanbidea ondo ikasi arte, lana doan egiten zuten, ikastearen truke. Lanbide berekoak, elkarren aldamenean bizi ohi ziren eta horren adierazle ditugu alde zaharreko hainbat kaleen izenak; hala nola: Zilardegi kalea, Denda kalea, Harategi kalea,... Txotxuak, txalupa-mutilak ziren, lanbidea ikasten ari zirenak.


Ea zenbat lanbide topatzen dituzun hizki-zopa honetan:

B	X	B	I	T	X	I	G	I	L	E	A	C
I	T	I	O	P	A	S	D	F	G	H	J	K
Z	C	S	O	K	A	G	I	L	E	A	N	E
A	T	R	Y	U	U	I	O	P	A	S	D	R
R	T	R	Y	U	U	I	O	H	A	Z	D	R
G	E	X	I	U	Y	T	R	A	O	A	M	E
I	W	O	K	I	N	A	U	R	P	P	P	M
N	L	E	Ñ	Z	X	C	V	A	L	A	M	E
A	L	Q	K	J	H	G	F	K	O	T	A	N
E	A	R	O	T	Z	A	U	I	E	A	E	T
Q	Y	F	C	T	M	N	N	N	K	R	A	A
H	A	R	G	I	N	A	O	A	G	I	Ñ	R
E	C	T	M	N	N	Q	P	F	P	A	N	I
S	A	R	E	G	I	L	E	A	M	H	G	A

SAREGILEA OKINA SOKAGILEA HARAKINA BITXIGILEA
 ERREMENTARIA ZAPATARIA BIZARGINA HARGINA AROTZA

Ezagutzen dituzu lanbide horiek?





Beste ze lanbide ezagutzen dituzu:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Eta zein lanbide gustatuko litzaizuke ikastea zuri? Zergatik?

.....

.....

.....

.....

Hara alde zaharreko
Kaxiana eta Anttonbordo erraldoiak.
Ezagutzen dituzu?

Ze lanbide dute zure ustez?

Kaxiana:

.....

.....

Anttonbordo:

.....

.....





Arrantzaleak garrantzitsuak izan dira eta dira Hondarribian. Garai hartan, ni bezalako baleak ehizatzen zituzten, eta guzti-guztia aprobetxatzen zuten, gantzarekin olioia egiten zuten eta horrekin argia eta beroa ematen zien sua, esate baterako.

Baleak, ehizatu egiten zituzten, ez arrantzatu. Arrantzatu, arraiak egiten dira, baina baleak, ez dira arraiak, baleak, ugaztunak dira.

Legatzak zer egiten dira, ehizatu ala arrantzatu?

.....

Eta antxuak?

.....

Eta basurdeak?

.....

Eta arroselak?

.....

Egun, galazita dago balearen ehiza.



Hara zer-nolako garrantzia zuten arrantzaleek, gremiorik ezagunena osatzen zutela. Done Pedro Itsas-gizonen Kofradia da gremio horren izena, eta oraindik ere lanean dihardu. Munduko kofradia zaharrenetakoa da. Hona bere zigiluaren marrazkia:





Egon zara inoiz Erdi-aroko azokan?

Alde zaharrearan egiten da ekainaren hasiera aldera. Bertan, erraz irudika dezakezu gure herria nolakoa izan zitekeen erdi aroan. Eskuz egindako produktuak saltzen ziren: oihalak, ontziak, beira, jantziak, tresnak, elikagaiak,... eta marabedi izeneko txanponekin ordaintzen zuten; nahiz eta lurtean gorotz ugari egon, estomaka nahasteko adina. Ea zenbat tresna eta lanbide antzematen dituzun irudian:




“Undarribia”

Herriaren izena aipatzen duen dokumentu zaharrena, orain arte aurkitutakoa behintzat, XII. mendekoa dugu. “Undarribia” agertzen da bertan idatzia, eta honen esanahia badirudi datorrela hondarra eta ibia-ren arteko loturaz.

Ibiak esan nahi du, ur sakonera txikia duen lekua.

Euskaraz, hitz konposatu asko ditugu:

- Hondar-ibia;
- Leize-zuloa
- Haitz-gibel= Jaizkibel
- galtza-erdi= galtzerdi
- mando-euli
- haurra-duena= hardun
- ardi-gazta
- patata-tortila
- bizarra duena= bizarduna



Ezagutzen dituzu beste hitz-konposatu batzuk? Idatzi bertan:

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Eta, asmatuko zenituzke beste batzuk?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Ikasgelako asmakizun bitxiena zein iruditu zaizu?

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Lurdes Zubeldia Garaño



Lurdes Zubeldia
hondarribiarrak,
Hondarribiari olerki eder hau
idatzi zion
(irakurri ozen):

“

AGUR HONDARRABI

Agur, Hondarrabi nire sorlekuari
Agur, itsas mendi, agur kabi kantari
Negarrez nua ni beharrez urruti
Panpoxa Hondarribi ni zure ameslari.

Zure esnatzea Guadalupeko ezkilak
Zure lo hartzea olatu soinu ixilak
Zure amestea zeruko izarrak
Ama ikustea herritar guztiak

Agur nire kabitxo, berdiñik gabeko
Agur nire usotxo baina ez betiko
Agur nire maitetxo ez naiz ez ahaztuko
Agur nire amatxo, laster etorriko”

Lurdes Zubeldia Garaño,

Hondarribian jaio zen 1923an eta bertan hil zen 2017an. Hil aurreko urtean, urrezko domina eman zion udalak. Emakume umoretsu eta argia izan zen eta sormen handikoa. Hainbat olerki eta kantu konposatu zituen eta hainbat testu idatzi. Hondarribia eta Euskal Herriarekiko maitasuna zerioten bere idatziei. 1936 ko irailean, gerra garaian, muga zeharkatu eta Ziburura alde egin behar izan zuen bere familiarekin. 13 urte zituela, kontserbera batean lanean hasi zen eta neskame bezala ere aritu zen. Oso gazte zela, ama eta aita hil zitzaizkion. Bere Hondarribia maitera itzuli zen izeba zaintzera, baina hura ere hil zenean, Parisa joan zen lan bila. Han zegoela idatzi zuen aurreko olerkia, herriminez. Parisen hainbat urte eman ondoren, Hondarribira etorri zen bisitan, bere senarra izango zena ezagutu zuen eta herrira itzuli zen, berarekin ezkontzera. Lau seme-alaba izan zituen. Lehentxoago irakurri duzun olerkiari, musika jarri zion Francisco Lazcanok, eta herriko abesbatzek abesten dute. Bere olerki, kantu eta sormen lana hobeto ezagutu nahi baduzu, segi Hondarribiko liburutegira eta bertan dago “nire sukaldetxoan” berak idatzitako liburua.



Zer ikusi duzu?



LEINUAK



ERROMATARRAK



ERDI AROA



LANBIDEAK



3. MAILA

“Zer **ikusi**, hura **ikasi**.”

Zer ikasi duzu?



A series of horizontal dotted lines for writing, spanning the width of the page.



Gure esker ona adierazi nahi diegu:

Ikastetxeak:

Ama Guadalupekoa ikastetxeko zuzendaria den Kizkitza Montes
San Jose ikastetxeko zuzendaria den Jagoba Aiestaran
Talaia HLHI ikastetxeko zuzendaria den Idoia Latasa
eta ikastetxe hauetako guztietako LHko koordinatzaile eta irakasleak



Hondarribiko udal teknikariak:

Arma Plaza Fundazioaren arduraduna den Miren Ayerbe
Euskara Zerbitzuko arduraduna den Karmelo Goikoetxea
Gazteria-hezkuntza teknikaria den Lurdes Cabezon
Liburutegiaren arduraduna den Kote Gebara



Irungo berritzeguneko:

Carmen Ruiz, LHko aholkularia
Iñaki Intxausti, BHko aholkularia
Maite Pardo, HH eta LHko aholkularia



Besteak:

Lurdes Zubeldiaren senitartekoak
Ken-Zazpi musika taldea



Egileak:

Lore Erriondo (Proiektu-burua)
Arma Plaza Fundazioa
Oihana Lekuona



Aholkularia:

Lourdes Odriozola

ISBN: 978-84-09-12139-7 | D.L.: SS-639-2019



978-84-09-12139-7



HONDARRIBIA



ARMA PLAZA
FUNDAZIOA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua

